

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

LAUDIOKO UDALA

Onura publikoko mendietako nahiz udal jabetzako mendietako bazka-larreak aprobetxatzeko udal ordenantzaren behin betiko onarpena

2021eko urtarrilaren 25ean hasierako izaeraz onetsi zen ohiko Osoko Bilkuran onura publikoko mendietako nahiz udal jabetzako mendietako bazka-larreak aprobetxatzeko udal ordenantza. Hasierako onespren horri dagokion iragarkia 2021eko otsailaren 12ko ALHAOn, 17. zenbakia duenean argitaratu zen, baita udaletxeko iragarkien taulan ere, eta hogeita hamar egun balioduneko jendaurreko informazio-epea hasi zen, alegazioak, erreklamazioak, iradokizunak eta ekarpenak aurkeztu ahal izateko.

Jendaurreko informazio-epe hori amaitu denez inolako alegazio edo iradokizunik aurkeztu gabe, Tokiko Araubidearen Oinarrien Legearen 49. artikulua adierazten du orain arte behin-behinekoa zen erabakia, behin betiko onetsizat jo behar dela. Lege aurreikuspen hori lege-testu beraren 70. Artikuluko 2. paragrafoan adierazitakoarekin osatzen da. Aipatu den artikulua oinarri hartuta, onura publikoko mendietako nahiz udal jabetzako mendietako bazka-larreak aprobetxatzeko udal ordenantza oso-osorik argitaratuko da ALHAOn eta behin testu osoa argitaratuta agertu ostean indarrean sartuko da lege-testu beraren 65.2 artikuluan aurreikusitako hamabost (15) eguneko epea igaro ondoren.

ONURA PUBLIKOKO MENDIETAKO NAHIZ UDAL JABETZAKO MENDIETAKO BAZKA-LARREAK APROBETXATZEKO UDAL ORDENANTZA ARAUTZAILEA

1. artikulua. Objektua eta esparrua

1. Ordenantza honen xedea da Audio udalerrri barruko onura publikoko mendiak eta udal jabetzako mendi publikoetan gaur egun dauden zein etorkizunean sor daitezkeen bazka-larreen aprobetxamendua eta gozamena arautzea.

2. Audio Udalak aukera izango du bazkalekuen aprobetxamendua baimentzeko ordenantza honetan eta Mendiak edota Bazkalekuak Antolatzeke Planean zehazten diren baldintzetan eta, bereziki, Plan horren V. tituluaren xedatutako baldintzetan; kapitulu hori berariaz garatzen da martxoaren 26ko 11/2007 Foru Arauaren, Arabako Lurralde Historikoko Mendiak arautzeakoaren bosgarren kapituluaren bidez.

3. Beren-beregi hartuko den udal erabakian zehaztutako lekuetan baino ez da bazkalekuen aprobetxamendua egingo, zehaztutako epean eta zehaztutako baldintzak beteta; nolana ere, Udalak aukera izango du egoerak eskatzen badu baldintza horiek guztiak modu justifikatuan aldatzeko.

Aurrekoa gorabehera, Audio Udalak beretzat gorde du legearekin bat eratutako udalerriko abeltzainen elkarrekin nahiz udalerriaz kanpo ere badiharduten beste elkarrekin bazka-larreen aprobetxamendua eta gozamena arautzeko hitzarmenak sinatzeko eskubidea.

4. Horri dagokionez, larreen kontserbazio eta hobekuntzarekin bateragarria izateko modukoa izan beharko du herri baso eta mendietan egiten den abeltzaintza eta, beraz, egungo larreak antolatzen, hobetzen eta hedatzen edota aldarazten saiatu beharko da, betiere, baso eta landaredi multzoei inolako kalterik eragin barik.

Zuhaitzez betetako mendietan, erabateko lehentasuna emango zaie oihan-beharrizanei eta, beraz, abeltzaintza oihan-beharrizan horien erabilera eta kontserbaziorako nabarmenki kaltegarria denean, abeltzaintza mugatu ahalko da, baita debekatu ere, ezinezkoa denean abeltzaintza aipatutako xedeekin bateragarria izatea.

5. Bazka-larreak aprobetxatzeko baimenei dagokienez, Euskal Herriko arrazak lehenetsiko dira.

2. artikulua. Bazkalekuen identifikazioa

1. Jarraian zerrendatzen dira bazkaleku gisa ustiatu eta aprobetxatu ahalko diren eremuak, betiere, martxoaren 26ko 11/2007 Foru Arauan, Arabako Lurralde Historikoko Mendiak arautzen dituen edota Erregelamendu honetan ematen diren xedapenak beteta. 1. eranskinean identifikatzen dira bazkaleku guztiak. Hona hemen zerrenda:

- Onura publikoko 72. Mendia – AMEZTUI. Bazka-larreen azalera 0,00 Ha. Zuhaitzez tartekatutako larreen edota zuhaixka-bazkadunen azalera: 1,2285 ha.

- Onura publikoko 73. mendia - ARRAÑO (GOIENURI). Aintzat hartutako bazka-larreen azalera: 38,270 ha.

- Onura publikoko 74. mendia - ARRAÑO (LARREA). Aintzat hartutako bazka-larreen azalera: 19,4050 ha.

- Onura publikoko 75. mendia – IÑARRONDO. Aintzat hartutako bazka-larreen azalera: 32,5683 ha.

- Onura publikoko 76. mendia - MOSTATXA eta PAGOLAR. Aintzat hartutako bazka-larreen azalera: 7,0668 ha.

- Onura publikoko 77 mendia – ZENAGORTAGANA-URKITZA. Aintzat hartutako bazka-larreen azalera: 13,5874 ha.

2. Azalera urtero adieraziko dira, eskaerak aurkezteko epea ireki aurretik. Nolanahi ere, azalera horiek aldaketak edo moldaketak izan ahalko dituzte Udalaren kudeaketaren, azterlanen nahiz Nekazaritza Partzelen Informazio Geografikorako Sistema (SIGPAC delakoaren) berrikuspenen arabera.

3. artikulua. Onuradunak

Pertsona eta erakunde hauek eska dezakete larreak aprobetxatzeko baimena:

a) Laudio udalerrian legez eratu diren eta egoitza bertan duten abeltzainen elkarteak edota Laudioko herritarrak. Ezin izango da eskatu aldi berean norbanako gisa eta elkarte bateko kide gisa.

b) Larreen gaineko usadiozko eskubideak dituzten auzo-udalerrietako elkarteak, betiere, baldin eta legalki eratuak badaude, eskatzeko unean bertoko auzokideen eskaerekin abere-zama dagoeneko gainditua ez badago eta bertoko auzokideek eskaerak aurkezteko duten epea jadanik agortu badute.

c) Udal honekin bazka-larre edota –eskubideei buruzko akordioak sinatu dituzten udal-tako auzokideak, betiere, baldin eta eskatzerako unean auzokideen eskaerekin dagoeneko abere-zama gainditua ez badago eta bertoko auzokideek eskaerak aurkezteko duten epea jadanik agortu badute.

4. artikulua. Onuradunen betebeharrak

Betekizun hauek izango dituzte onuradunek:

a) Adinez nagusiak eta erretiratu gabeak, edo adingabe emantzipatuak edo judizialki gaituak izatea eta abelazkuntzan jardutea, larre izaera duten euren lur propioetan lan eginez.

b) Erroldan izena emana izatea, gutxienez, urtebetez erroldatua egon izana eta, gainera, Laudio Udalaren abeltzainen zerrendan ere inskribatua egotea. Hala ere, abeltzain gazteak antzinasun eskakizunaz salbuetsi ahalko ditu Udalak.

c) Udalarekiko zerga- eta tributu-betebeharrak beteak eta egunean izatea.

d) Abere-etxalde edo abere-funts baten titularrak izatea eta etxaldea edo funtsa Arabako Foru Aldundiaren Abelazkuntza Ustiapenen Erregistroan inskribatua egotea.

e) Elementu teknikoetara eta ingurumenari dagokionez egokia den lur edota abaro nahikoa izatea abeltzainak bizileku duen herrian abereak edukitzeko, bazkatarako espezieen gelditze begetatiboaren ondorioz, osasun berrogeialdien ondorioz, baso-mendien egoera fisikoaren ondorioz edota dena delako arrazoiengatik beharrezkoa den denboran, bertan abereak bazka-baliabide propioekin elikatzeko aukera izatea eta hori guztia dokumentu bidez frogatzeko modua izatea.

Salbuespen gisa, onartu egin daiteke abelazkuntza-ustiategia abeltzaina erroldatuta dagoen herrian ez egotea, betiere, baldintza hauek betetzen baditu:

- Kortaratu beharreko abereak gehienez ere 12 orduko epean kortaratzeari ahalbidetzen dien erradio batean kokatua egotea.

- Abeltzainaren erroldatze-herriarekiko hurbiltasuna.

- Denbora eta lanaldi osoko eskuragarritasuna izatea abeltzaintza jarduerarako eta abelburu kopururako. Titularrak egiaztatu beharko du larreratzeko eskubidea duten abereen presentzia, gobernua eta kudeaketa aipatutako instalazioetan.

f) Saneamendu-kontrolari eta abereen mugimenduari dagokienez indarrean dagoen arauditik eratorzen diren betebeharrak betetzea.

g) Aprobetxamendu-baimenaren titularra izatea, bazka-larreen aprobetxamenduari ekin aurretik.

h) Abereak markatuak edukitzea aldeztu aurretik eta banaka, ofizialki onartutako sistema baten bidez, eta, gainera, behi-, zaldi-behor, ahuntz-aker eta asto-azienden kasuan, abereak identifikatzeko zenbakidun udal belarritakoak ere ipintzea. Abeltzainek beraiek jakinarazi beharko dute esanbidez belarritako berririk behar ote duten bazka-larreetan sartu aurretik.

5. artikulua. Aprobetxamendua baimentzeko prozedura

1. Esanbidezko udal ebazpen baten bidez baimenduko da bazka-larreen aprobetxamendua, interesdunak eskaera preseski emandako epean aurkeztu ostean, eta artikulua honetan arautuko den prozedura izapidetutakoan.

2. Dokumentazio hau erantsi beharko zaie eskaerei:

a) Pertsona fisiko eskatzailearen datu pertsonalak: izen-abizenak, NAN, ogibidea, helbidea, telefono finkoaren nahiz eskukoaren zenbakiak, helbide elektronikoa eta ustiategiaren zenbakia.

Pertsona juridikoen kasuan, pertsona fisiko eskatzaileak ordezkariaren egiaztatzea eta pertsona juridikoen IFZ ere aurkeztu beharko ditu bere datu pertsonalekin batera.

b) Ordenantzan xedatutako betekizunak betetzen direla ziurtatzeko zinpeko adierazpena.

Zehazki, adierazpen horretan ziurtatu beharko da eskatzailea ez dagoela erretiratua, eta, horrez gain, baimena eman beharko zaie udal zerbitzuei beharrezko egiaztapenak egin ditzaten.

c) Erantzukizun zibileko aseguruaren ordainketak eginak eta egunean izatearen ziurtagiria (onuraduna elkarte den kasuetan soilik).

d) Larreratuko den abelburu bakoitzaren identifikazio-zenbakia eta dagokion erregistroan inskribatua dagoela ziurtatzeko egiaztatzea.

e) Pertsona eskatzailea titulartzat duen abeltzaintza-ustiategiaren txartelaren kopia.

f) Egindako azken saneamendu-kanpainaren fotokopia.

g) Konpromisoa Udalarari baimena emateko abeltzainen udal erregistroan sar ditzan abeltzainak eman dituen datuak, udal larreak behar bezala kudeatu ahal izateko. Halaber, konpromisoa Udalarari baimena emateko Arabako Foru Aldundiko Abeltzaintza Zerbitzuari eska diezaion aprobetxamenduak behar bezala kudeatzeko behar den datu oro.

h) Eskatzailearen errolda-ziurtagiria.

i) Ordenantza hau onetsi osteko lehen urtean aurkeztu beharko dute interesdunek auzokide dituen herrian bertan eta beharrezko denbora osoan abereentzat teknikoki eta ingurumenaren aldetik egokia den lur edota abaro nahikoa duela egiaztatzeko dokumentazioa, abereak bertan egoteko, bazka- edo anabaka-baliabide propioz elikatu ahal izateko eta hori guztia dokumentu bidez frogatu ahal izateko moduan. Ondorengo ekitaldietan, urterik urte adierazi beharko dute interesdunek eskaeran hasiera batean aurkeztutakoari egin zaizkion aldaketak, egin izan badira.

Ez da beharrezkoa izango e), f) eta h) idatzi-zatietan adierazitako dokumentazioa aurkeztea baldin eta Administrazioaren esku badago eta ez baldin bazaio aldaketarik egin hasiera batean aurkeztutakoari.

Ez da onartuko lehenago aipatutako betebeharrak betetzen ez duen eskaerarik, ezta epez kanpo aurkezten denik ere.

3. Udal zerbitzu teknikoek aurkeztu den dokumentazioa aztertuko dute, eta 10 egun naturaleko epea emango diote interesdunari egon litezkeen akatsak zuzentzeko. Emandako epe horretan interesdunak ez baditu dokumentazioan antzemandako akatsak zuzentzen, dokumentazioa artxibatuko da, izapide gehiagorik gabe.

Espedientean dokumentazio osoa dagoenean, aurkeztutako eskaerak ebatziko dira, betiere, egokitzen diren txosten teknikoak jaso eta aztertu ostean, eta, gehienez ere, aurkeztu zirenetik hiru hilabeteko epean.

4. Laudion erroldatutako abeltzainen eskaerekin bazka-larre guztien aprobetxamendua esleitzen ez bada, betekizun orokorrak betetzen dituzten abeltzainen arteko lehiaketa bidez esleitu ahalko da esleipendunik gabe geratu diren larreen aprobetxamendua, alde batera utzita udalerrian erroldatua egoteko betekizuna. Jarraian azalduko diren irizpideak aplikatuta eta lehentasun-hurrenkeran egingo da bigarren esleipen hori:

Interesdunak aurkeztutako errolda agiriaren arabera hurbiltasuna.

Abeltzain gaztea izatea.

Kasuan kasuko ustategia jarduera nagusia izatea.

Kasu horretan, ordaindu beharreko kanona urte-urtean ezartzen den kuota bider 1,5 izango da, gutxienez.

Baldin eta bigarren esleipena amaitu ostean ez bada eskuragarri dauden bazka-larre guztien aprobetxamendua esleitzen, Arabako Foru Aldundiak aukera izango du eroslehentasun-eskubi-dea erabiltzeko, foru arau aplikagarrietan xedatutakoarekin bat.

5. Aprobetxamendu-eskaerak abere-zama onargarria gainditzen badute, Udalak mugatu egingo du larre bakoitzean onar daitekeen abelburu kopurua, eta lehentasuna emango die jarduera nagusia abeltzaintza duten abeltzainei, eta, betiere, irizpide teknikoaren, ingurumen-irizpideen eta irizpide sozialen arabera finkatuko moduluak kontuan hartuta.

6. artikulua. Onuradunen betebeharrak

Hauek dira onuradunen betebeharrak:

a) Larreak ebazpenean eremu bakoitzerako adierazitako aldietan erabiltzea, berariaz adierazitako intentsitatearekin.

JOKAERA	ARDIAK			BEHIAK	ZALDIAK	AHUNTZAK
	ERRETXINA	MENDIAN JEZTEA	HARANEAN JEZTEA			
Larreen sarrera	Apirila	Maiatza	Uztaila	Maiatza	Apirila	Maiatza
Egoera fisiologikoa	Edoskitzea	Lehorra	Lehorra	Edoskitzea	Haurdunaldiaren amaiera	Lehorra/Ume
Kumeak kentzea		Uztaila		Iraila Urria	Iraila Urria	Azaroa Abendua
Helduak kentzea		Azaroa Abendua		Azaroa Abendua	Abendua Batzuk mendian egongo dira	Azaroa Abendua

b) Ez erabiltzea larreak baimendutakoez bestelako xedeetarako.

c) Baimendutako erabilera eta aprobetxamendu guztiak errespetatzea, adierazitako baldintzetan.

d) Animalien osasunari buruzko arauak betetzea, oro har, eta kasuan kasuko saneamendu kanpainak, zehazki.

Horretarako, saneamendua egina izan beharko dute abeltzaintza-ustiategiaren parte diren abelburuek zein bazka-larreetara eramaten direnek. Horrez gain, abelburuek gaixotasun infektokutsakorrik ez dutela egiaztatzeko dokumentazioa ere eduki beharko du. Baimenduak dokumentazio hori aurkeztu beharko die udal zerbitzuei, hala eskatzen badiote.

e) Bazka-larreetan bazkatzen den abelburuek gaixotasun infektokutsakorren bat badute, baimenduak berehala aterako ditu bazka-larreetatik eta horren berri emango dio Audio Udalari. Udal zerbitzu teknikoek zehaztuko dute esku hartzeko protokoloa, albaitaritza-zerbitzuarekin eta kasuan kasuko inguruabarretara moldatuta.

f) Kasuan kasuko udal tasak ordaintzea.

g) Auzolanetan modu eraginkorrean parte hartzea. Horretarako, itxitura, edaska, igarobide kanadar eta tratamendu-eskorten mantentze-lanetan lagundu beharko da, Bazka Larreen Jarraipen Batzordean onesten denarekin bat.

h) Bazka-larreak erabiltzeko moduan mantentzeko kostuak ordaintzea.

i) Aprobetxamendu-azalerak ikuskatzeko sortu den Bazka Larreen Jarraipen Batzordean parte hartzea.

j) Ez egitea barne-itxiturarik edo lote-banakatarik larreen barruan alanbre-hesiak ipinita. Betebehar hori ez da bete beharko, baldin eta udal txosten tekniko baten bidez beren-beregi baimentzen bada, bazka-larreen mantentzerako beharrezkotzat jota.

k) Bide-zorrak eta itxitura zedarrituak errespetatzea.

l) Europako erakundeetatik jasotako dirulaguntzen berri ematea horiek jaso eta berehala.

m) Abereen mugimenduen berri ematea, zehazki bazka-larretarako sartzeen eta ateratzeen berri, baita bazka-larreen arteko mugimenduen berri ere.

n) Errespetatzea birlandatzeetarako eta birsortzeko ipinitako itxitura eta hesiak, hala nola suteen ostean mugatu eta hesitutako azalerak.

o) Lurra lantzea eta abereak zaintzea modu zuzen eta pertsonalean, edo titularrarekin batera elkarrekin bizi diren senideen laguntzaz, soldatapeko langileak erabili barik, betiere, nekazaritza-ustiapenaren urtaroko beharrianengatik ez bada. Betebehar hori ez da bete gabetzat joko soldatapeko langile bat edo bi erabili ostean, baldin eta titularra gaixotzearen ondorioz bada edo lan pertsonalarekin gorago definitutako moduan jarraitzea eragozten dion beste edozergatik bada.

7. artikulua. Abeltzaintza-ustiategien udal erregistroa

1. Behin bazka-larreak erabiltzeko eskubidea emanda, titularrek Abeltzaintza Ustiategien Udal Erregistroan inskribatu beharko dute.

Abeltzaintza Ustiategien Udal Erregistroan inskribatu ezean, automatikoki galduko da bazka-larreak aprobetxatzeko eskubidea.

2. Dokumentazio hau aurkeztu beharko da Abeltzaintza Ustiategien Udal Erregistroan inskribatzeko:

a) Pertsona fisiko interesdunak aurkeztutako inskripzio-eskaera, datu pertsonalak barne, eta, hala badagokio, aprobetxamenduaren titularraren den pertsona juridikoaren ordezkariaren egiaztatzea. Azken kasu horretan, pertsona juridikoa eratzeko eskritura eta horren ordezkariaren diharduen pertsona fisikoaren ahal askietsia ere aurkeztu beharko dira.

b) Arabako Foru Aldundiaren Abeltzaintza Ustiategien Erregistroan inskribatua egotearen ziurtagiria.

c) Audio udalerrian edo, hala badagokio, udalerririk mugakideren batean abereentzat teknikoki eta ingurumenari dagokionez egokia eta nahikoa den lurra edota abarrea izatearen egiaztatze dokumentala: ustiategiari atxikitako lursail eta partzelen zerrenda, zeinetan adierazi beharko baita horien kokapena, edukitze-araubidea eta ustiategiari atxikitako eraikin eta instalazioak, horietako bakoitzaren azalerarekin, eginkizunarekin eta edukitze-araubidearekin batera.

3. Udalerriko mendien kudeatzailea den heinean, Audio Udalak beretzat gorde du aurkeztutako datuen eta egindako baieztapenen egiazkotasuna eta zehaztasuna uneoro kontrolatzeko eskubidea.

4. Abeltzainek, abeltzaintza elkarteek eta abeltzaintza sozietateek Udalari jakinarazi beharko diote euren abeltzaintza-ustiategien baldintza fisiko edota juridikoetan gertatutako edozein aldaketa.

8. artikulua. Baimendu gabeko abereak

1. Baimendu gabeko abereak bazka-larreetan sartzen badira, abeltzain erabiltzaileek konpromisoa hartzen dute Udalari berehala horren berri emateko, idatziz, kide dituen abeltzaintza elkartearen bitartez edo euren kabuz.

Udal zerbitzuek horren berri eman duten abeltzainen anonimotasuna bermatuko du.

2. Udalak bere kabuz nahiz beste erakunde publikoekin lankidetzan egotz ditzake baimendu gabeko abereak, edo, hala dagokionean, abeltzaintza-elkarteekin edo pertsona kontratatuekin batera. Gainera, erantzukizunak eska diezazkieke abere horien jabeei.

3. Oro har, ez dago baimenduta abereak basoan bazkatzea, ez bada salbuespen justifikatuetan, baso hostozabal iraunkorretan eta kimuak edo landare-azalak jaten dituzten etxeko espezie libreen edo basoko espezie etxeratuen aldetik, esaterako, ahuntzen edota oreinen familiakoen aldetik.

Salbuespen justifikatu gisa onartuko dira artzain batek gobernatutako artaldeetako ahuntz gidariak. Hala eta guztiz ere, urtero emango da aditzera mendiko zein eremu zehatzetan uzten zaien mota horretako abereei sartzen, sasitza handiegia edo sute-arriskua duten zonaldeak birsortzen laguntzeko. Horretarako, landare eta animalien kontserbazioa nahiz mendi-basoen kudeaketa iraunkorra bermatuko duen proiektu teknikoa prestatuko da.

4. Hipika- edo aisialdi-instalazioetako arraza arrotzetako zaldiak mendian bazkatzea ere ez da onartuko.

9. artikulua. Abere-zama

1. Kudeaketa-planaren eta gaiari dagokionez indarrean dagoen legediaren arabera zehaztuko da larreek onar dezaketen gehienezko abere-zama.

Ezingo dira inolaz ere gaintitu 2,0 AzLU/ha baino handiagoak diren gainzama puntualak, eta, edonola ere, urteko batez besteko abere-zamak 1 AzLU/ha ingurukoak izatea zainduko da, eta beti 0,2 AzLU/ha baino handiagoak.

2. Pertsona edo erakunde onuradun bakoitzeko abelburu kopuru maximoa 60 abelburukoa izango da abelgorri eta zaldi-behor larrien kasuan, eta 480 abelburukoa ardi-azienden kasuan. Zifra horiek urtero berrikusi ahalko ditu Laudio Udalak, baldin eta eskaerek abere-zama onargarria gaintitzen badute.

10. artikulua. Neguko atsedaldia

1. Abeltzaintza urte bakoitzeko urtarrilaren eta maiatzaren artean eten beharko da bi hilabetez gutxienez udal larreetan, larreak birsortu daitezten eta abereek osasun programak nahiz identifikatu gabeko abereen kontrola errazteko.

2. Abeltzaintza-jardueren etenaldia ez da inoiz izango bi hilabete baino laburragoa, urtarrilaren 1a maiatzaren 1a bitartean egin beharko da eta data hauetan egingo da:

Arraño Handiko larrea: urtarrilaren 1etik apirilaren 15era, biak barne.

Arraño Txikiko larrea: urtarrilaren 1etik apirilaren 1era, biak barne.

Elorritxuganako larrea: otsailaren 15etik apirilaren 15era, biak barne.

Mostatxa-Pagolarreko larrea: urtarrilaren 15etik martxoaren 15era, biak barne.

Kamaraka-Goikomendi-Alpitxu larrea: urtarrilaren 15etik martxoaren 15era, biak barne.

3. Jarraian azalduko diren kasuetan baino ezingo da aldatu hasierako egutegi hori, eta, betiere, modu arrazoituan eta udal ebazpen bidez:

a) Udalerrri mugakideekin bazka-larreei buruzko akordioak dauden larreen kasuan, betiere, alderdien adostasuna lortu ostean, eta bi udalerrietan atsedenaldiak aldi berean egiteko helburuaz.

b) Bazka-larreen egoeraren ondoriozko atsedenaldi gehigarrien kasuan, betiere, Bazka Larreen Jarraipen Batzordearen erabakia izanda.

c) Ezohiko kasu gisa, eguraldi-baldintzen edo aurreikusi ezineko beste egoeren ondorioz.

4. Neguko atsedenaldiek dirauten bitartean, ezingo da abererik geratu mendian; aprobetxamenduaren titular diren abeltzainen ardura izango da abere taldeak biltzea.

Abereak ez badira bazka-larretik ateratzen, eta euren betebeharrak betetzeko epea eman ostean, Administrazioak aterako ditu abereak bazka-larretik, abeltzaintza-ustiategi erantzulearen kontura. Ustiategiak ez badu dagozkion abereen ardura hartzen, abere abandonatutzat joko dira.

11. artikulua. Osasuna

1. Bazka-larreen aprobetxamenduaren titularrek animalien osasunari buruzko arauak bete beharko dituzte, oro har, eta kasuan kasuko saneamendu kanpainak, zehazki.

2. Halaber, nahitaezkoa izango da larreratzen diren abere guzti-guztiek eta lehenago aipatutako abereekin kontaktua duten ar guztiek Laudioko osasun-plana betetzea. Urtero onetsiko da plan hori, eta Abeltzaintza Ustiategien Udal Erregistroan inskribatutako pertsonen jakinaraziko zaie.

Nolanahi ere, betebehar horrek inplikatzeko du, gutxienez, gaixotasun hauek kontrolatzeko esku hartzeak egitea: I. B. R. (behien infekziozko errinotrakeitisa), B. V. D. (behien beherako birikoa), paratuberkulosia, neosporak, trikomonak eta campilobacter.

12. artikulua. Hazitarako abereak

1. Aukera egongo da edozein arrazatako hazitarako abereek bazka-larreak erabiltzea baimentzeko.

Aurrekoa gorabehera, bertoko arraza hauek lehentasuna izango dute:

Zaldiak: pottoka eta euskal mendi-zaldia.

Zezenak: pirenaikoa, terreina, montxina eta betizu.

Akerrak: azpigorri eta azpizuri (arrazza-estandarra finkatzeke).

Ahariai: latxa eta sasiardi.

2. Hazitarako abereek bazka-larreak aprobetxatzeko eskubide hori esanbidez eskatu beharko du interesdunak, eta, horretarako, dokumentazio hau aurkeztu beharko du:

a) Eskaria egiteko idazkia.

b) Larre berean edo amankomunatzeko larreen akordioa duten udalerrri mugakideetako larreetan bazkatzeko baimena duten gainerako abeltzainek izenpetutako akordioa.

c) Animalien identifikazio genetikoa eta osasun identifikazioa egiteko eska daitekeen dokumentazioa.

13. artikulua. Bazka-larreak aprobetxatzeko baimenak baliogabetzea

1. Udalak jarraian ageri diren kasuetan kendu ahalko ditu baimenak:

a) Bazka-larreak aprobetxatzeko eskubidearen titularrak bazka-larrea ez erabiltzea edo behar baino gutxiago erabiltzea.

b) Administrazio bidean zehapen irmoa jaso izana mendiari kalte larriak eragiteagatik.

c) Epe barruan ez ordaintzea Udalak xedatutako kanona edo tasak.

d) Herrian erroldatua egoteari uztea eta, beraz, ordenantza honen arabera aprobetxamendu eskubidea galtzea.

e) Onuradunak uko egitea.

f) Berariaz baimendutakoa ez den pertsona batek bazka-larreak erabiltzea.

g) Edozein tituluren bitartez eskualdatzea esleitutako larreen erabilera-eskubidea, salbu eta eskualdatze hori familia unitate baten baitan ematen bada, hertsiki, eta aurretik horren berri eman bada.

h) Egunean ez edukitzea edozein obligazio fiskal edo Gizarte Segurantzarekiko edozein betebeharrak.

i) Auzolanetan parte ez hartzea.

j) Bazka-larreen mantentze-lanetarako beharrezkotzat jotzen diren kostuak ez ordaintzea.

k) Bazka Larreen Jarraipen Batzordean parte ez hartzea.

l) Jaramonik ez egitea Udalaren edozein errekerimenduri.

m) Ez edukitzea udal belarritakoarekin behar bezala markatuak abere guztiak, berdin zaldi behorak, asto-astemeak, ahuntz-akerrak nahiz ardi-ahariai.

n) Udalak esanbidez baimendutako interesdunei eragozteko larreak erabiltzea.

o) Bazka-larreetarako diren lursailak erabiltzea beren-beregi baimendutakoez bestelako gauzetarako.

p) Abereei bazka azalera txikietan ematea, azalera txiki horiek gehiegi zapaltzen direlako eta zorua gehiegi trinkotzen delako.

q) Osasun arrazoiengatik larrea hustu behar denean.

r) Erabiltzaileen kolektiboaren interesak direla medio, esanbidezko baimenen bat kendu behar denean.

s) Abereen joan-etorrien berri ez ematea.

2. Baimendutako epearen edozein unetan baliogabetu daitezke baimenak, eta aurreko idatzi-zatian adierazitako kausaren baten bidez arrazoitu beharko da baliogabetzea.

3. Baliogabetzeko prozedura bideratzeko, lehenik eta behin, baimendutakoari jakinarazi beharko zaio; hiru laneguneko gehienezko epea emango zaio alegazioak aurkezteko, urgentziatzko salbuespen kasuetan izan ezik. Alegazioak aurkezteko epe hori bukatutakoan, behin betiko ebazpena emango da, eta 15 egun naturaleko gehienezko epea emango da abereak menditik ateratzeko.

4. Behin udal baimena baliogabetuta, udal zehapen-espeditentea zabalduko da baldin eta baliogabetzearen arrazoa udal ordenantza hau edo arau aplikagarriren bat urratzea izan bada.

14. artikulua. Baimen besterenezina

Udalak bazka-larreak erabiltzeko ematen dituen baimenak besterenezinak dira. Ondorioz, ezin da inola ere eskualdatu, ez inter vivos, ezta mortis causa ere.

Arau orokor horretatik kanpo geratzen dira, hertsiki familia-unitate beraren barruan ematen diren eta baimenak indarrean jarraitzen duen bitartean egiten diren eskualdaketak. Ondore horietarako, familia-unitate hertsizat joko da elkarrekin bizi diren, etxebizitza bakarrean errol-datuak dauden eta familia-nukleo bakarra osatzen duten pertsonak osatutakoa.

15. artikulua. Ikuskapen-ahala erabiltzea

1. Foru zerbitzuekin erkatzeko aukera gorabehera, Laudio Udalak edozein unetan erabili ahaliko ditu onura publikodun mendien nahiz udal jabetzako mendi publikoen aprobetxamendua, aprobetxamendua zenbat abelbururentzat eskatu den eta benetan zenbat dauden bazka-larreetan nahiz udal baimenak ikuskatzeko, barne hartuta eskatzaileek egindako adierazpenen eta emandako datuen egiazkotasuna.

2. Ahal hori erabiltzearen ondorioz, bazka-larreak hobeto eta egokiago erabiltzeko beharrezkotzat jotzen diren ebazpenak eman ahaliko dira, betiere, beharrezkotzat jotzen diren txostenak eskatu eta jaso ostean.

Nolanahi ere, nahikoa izango da argazki-dokumentazioa baimenik gabeko abelburuen jabeek bazka-larreetatik atera ditzaten, udal ebazpenaren beharrik gabe. Titularrari jakinarazpena helarazteko txostena eman ostean, hark ez baditu abelburuak bazka-larretik ateratzen hiru egun naturaleko epean, udal zerbitzuek aterako dituzte eta abandonatutako abelburutzat tratatuko dira.

15 bis artikulua. Identifikatu gabeko abelburuak

1. Mendian identifikatu barik aurkitzen diren abelburuak jabegabetzat joko dira.

2. Laudio Udalak harrapatu eta aterako ditu abelburu jabegabeak edo, hala dagokionean, Arabako Foru Aldundiko sail eskumendunak.

Udala arduratuko da abelburu jabegabeaz; pertsona gordetzaile bat izendatuko du, gehienez ere izendapen horretatik aurrera zenbatutako 15 lanegunetz gorde ditzan.

Hamabost eguneko epe horretan norbaitek abelburuen jabe dela frogatzen badu, eman egingo zaizkio. Jabe dela egiaztatu ostean, interesdunak abelburuak berreskuratu ahaliko ditu, betiere, eragindako gastuak, kalteak eta eragozpenak ordaindu ondoren, eta ipini lekiokoen zehapena gorabehera.

Hamabost laneguneko epe horretan inork ez badu egiaztatzen abelburu jabegabeen jabea denik, enkante publiko bidez besterenduko dira abelburuak.

16. artikulua. Kanona

1. Bazka-larreen aprobetxamenduen titularrek kanon bat ordaindu beharko diote urtero Udalari horregatik, aplikagarriak izan litezkeen beste udal tasak gorabehera.

2. Udalbatzaren Osoko Bilkurak zehaztuko du urtero ordaindu beharko den kanona. Kanona zehazteko, nekazaritza-izaerako irizpideak hartuko dira kontuan, Arabako Foru Aldundiaren sail eskumendunak emandako jarraibideekin bat.

3. Ustiatagia Laudio udalerriaz kanpo duten abeltzainek zehaztutako udal kanona bider 1,5 ordaindu beharko dute.

17. artikulua. Bazka larreen jarraipen batzordea

1. Bazka Larreen Jarraipen Batzorde bat sortuko da larreen erabilera eta aprobetxamendu onaren inguruko gaietarako kontsulta-, aholku- eta koordinazio-organo gisa.

2. Hauek osatuko dute Batzordea:

a) Laudio Udalak bere teknikari edota langile, zerbitzu kontratatu edota zinegotzien artetik izendatutako hiru (3) ordezkari.

b) Larreak aprobetxatzeko baimena duten abeltzain guztien artetik lau (4) ordezkari. Lau ordezkari horietatik bik (2) baino ez dute hitza eta botoa izango, eta beste biek hitza izango dute, baina ez botorik.

c) Horiez gain, Arabako Foru Aldundiaren Nekazaritza Saileko ordezkari batek ere hartu ahalko du parte batzordean, hitza edukita, baina boto barik. Aldundiaren ordezkari horiek botoa izango dute baldin eta kasuan kasuko larreak onura publikodun mendietan badaude.

Udalak beretzat gorde du Batzordera nahi beste teknikari gonbidatzeko eskubidea.

18. artikulua. Inguruko udalerrietako abereak

1. Laudio Udalak udalerrri mugakideetako abelburuekin malgu jokatzeko zonaldeak zehaztu ahalko ditu, baldin eta bazka-larreei buruzko akordio historikoak badaude udalerrri horiekiko.

2. Hauek dira udalerrri mugakideetako abelburuekin malgutasunez jokatzeko zonalde horiek ezartzeko baldintzak:

- Urtero xedatzen diren osasun-baldintzak betetzea.
- AzLU/ha orekari eustea inguruko larreetan.
- Ordenantza honetan bertoko arrazei dagokienez xedatutako babes-neurriak betetzea.
- Abelburuak udal belarritakoarekin identifikatuak izatea.

3. Udalaren ebazpen gaitasunak gorabehera, Bazka Larreen Jarraipen Batzordean jorratuko dira horien zehaztapenak eta baldintzak.

19. artikulua. Bazka larreak hobetzeko azterlanak

1. Udalak aldizka egingo ditu sortutako bazka-larreak osoki aprobetxatzeko behar diren azterlanak Arabako Foru Aldundiaren Nekazaritza Sailarekin elkarlanean, betiere, aprobetxamendu hori bateragarria bada larreen kontserbazioarekin eta hobekuntzarekin.

2. Azterlanetatik eratortzen diren emaitzak hurrengo ekitaldietan bazka-larreak kudeatzeko oinarri gisa erabiliko dira, eta, nolana ere, kontuan hartu egin beharko dira Bazka Larreen Jarraipen Batzordearen batzarretan nahiz ematen diren udal ebazpenetan, emaitza horiek bazka-larreak antolatzeke planetan jasotzeko aukera gorabehera.

20. artikulua. Arau-hausteak

1. Bazka-larreak aprobetxatzeari dagokionez indarrean dagoen araudiaren aplikazioa gorabehera, beren-beregi xedatzen da arau-haustea dela ordenantza honetan jasotakoak urratzea.

Nolanahi ere, zehapenei dagokienez aplikatzekoa izango da Arabako Lurralde Historikoko Mendiak arautzeko Foru Arauaren zazpigarren titulua, baita azaroaren 21eko 43/2003 Legean, Mendiei buruzkoan edota horiek eguneratzeko edo ordezteko ematen diren arauetan xedatutakoak ere.

2. Ordenantza honetan xedatutakoaren kontrako arau-hausteak oso larriak, larriak nahiz arinak izan daitezke.

3. Hauek dira arau-hauste arinak:

- 1) Bazka-larrea behar baino gutxiago erabiltzea.
- 2) Auzolanetan parte ez hartzea errekerimendua egin ostean.
- 3) Bazka-larreak aprobetxatzeko baimena duten abelburu bat edo gehiago behar bezala identifikatua ez izatea, betiere, akats hori puntuala eta errepikatu gabea bada.
- 4) Ez jakinaraztea abereak bazka-larrean sartu edo bazka-larretik irten direla.
- 5) Ez jakinaraztea abereren batek gaixotasun infektokutsakorra duela.
- 6) Ez ematea ustiategi batean jazotako gorabehera esanguratsuen berri, baldin eta udalerriko onetsi den osasun-plan orokorrari eragiten badiote.
- 7) Ez laguntzea baimenik gabeko abereak biltzen Udalak eskatu ostean.
- 8) Ez hartzea parte Bazka Larreen Jarraipen Batzordeak adostutako mantentze-lanetan.
- 9) Abereei mendian elikadura ematea, esanbidezko udal baimenik gabe.
- 10) Mendian abeltzaintzako hondakinak uztea, esaterako; plastikoak, sareak, mailak, abereentzako hesiak, etab.

11) Ordenantza honetan larritzat edo oso larritzat tipifikatu gabeko beste edozein arau-hauste.

4. Hauek dira arau-hauste larriak:

- 1) Animaliak bazkatzen izatea horretarako xedatu den garaiaz kanpo.
- 2) Esanbidezko udal baimenik ez duten animaliak bazkatzea eramatea.
- 3) Esanbidezko udal baimenik ez duten animaliak bazkatzea eramatea.
- 4) Hirugarren baten abereak larreratzea titularrarenak izango balira bezala.
- 5) Animaliak larreratzea Arabako Foru Aldundiaren edota Laudio Udalaren osasun-kanpainako probak egin barik, edo nahitaezko txertoak eman barik.
- 6) Administrazio-bidean zehapen irmoa jaso izana mendiari kalteak eragiteagatik.
- 7) Ez ordaintzea kanona edo Laudio Udalak xedatutako beste tasak.
- 8) Bazka-larrea erabiltzea baimendutakoaz bestelako gauzetarako.
- 9) Abereak edukitzea Bazka Larreen Jarraipen Batzordeak, Arabako Foru Aldundiak edo gaian eskumenak dituzten bestelako erakunde edo organismoek xedatutako identifikazio-sistematik gabe.
- 10) Aditzera ez ematea gaixotasun infektokutsakorra duen animalia baten heriotza.
- 11) Onuradun gisa baimenduta dituenak baino abelburu gehiago larreratzea, baldin eta abelburu kopuruak aprobetxamendu-planean aurreikusitako kopurua gainditzen badu.
- 12) Abereak mendiratzea basoberritze baten ondoren zuhaitziak sasitaz beteak daudenean eta beren beregi bazka-larre gisa jasoak ez daudenean.

13) Sutea dagoenean, abisua jaso ondoren behar bezalako bizkortasunez ez joatea sua itzaltzeko lanetara, betiere, delako mendian zuzeneko edo zeharkako aprobetxamenduren bat badu.

14) Ez betetzea urterako onetsi den osasun-plan espezifikoa.

15) Izaera arineko arau-hausteengatiko bi ebazpen irmo edo gehiago jaso izana.

5. Arau-hauste oso larritzat jotzen dira:

1) Bazka-larreen birsorkuntza edota instalazioen kontserbazioa arriskuan jartzen duen edota gaixotasun infektokutsakorrek transmititzeko arriskua dakarren edozein ekintza edo omisio.

2) Abereen saneamendu-kanpainetako probetan edota Audio Udalaren osasun-planetan bideratzen diren probetan positibo eman duten abereak larreratzea.

3) Hildako abere bat edo gehiago ez ehorztea edo ehorzteko ez agintzea gaixotasun kutsakor baten edo bestelako gaixotasun baten ondorioz hil badira (betiere, hildako abereak jasotzeko zerbitzuari jakinarazi eta gero, jasotzea ezinezkotzat jo bada).

4) Abereak erretako eremuetan sartzea ezarritako debeku epea amaitu baino lehenago.

5) Belarritakoen erabileran iruzur egitea.

6) Izaera larriko arau-hausteengatiko bi administrazio ebazpen irmo edo gehiago jaso izana.

6. Ordenantza honetan jasotako arau-hauste larriak bost urteren buruan iraungiko dira, hiru urteren buruan larriak eta urtebeteren buruan arinak, egin zirenetik aurrera zenbatuta.

Iraungitzea geldiarazi egingo da zehapen-izaerako administrazio-prozedura bat hasten denean, betiere, interesduna jakitun dela; iraungitze epea berriro hasiko da, baldin eta zehapen-espedientea hilabete baino gehiagoz geldiarazia geratzen bada ustezko erantzuleari egotzi ezin zaion arrazoiren batengatik.

21. artikulua. Zehapenak

1. Isun hauek ipini ahalko dira ordenantza hau urratzeagatik:

a) Arau-hauste arinak: 750 euro arte.

b) Arau-hauste larriak: 1.500,00 euro arte.

c) Arau-hauste oso larriak: 3.000,00 euro arte.

Erakunde zehatzaileak zehaztuko du zenbatekoen mailakatzeko zehatza, Bazka Larreen Jarrailpen Batzordearen irizpena eta balorazio-txosten teknikoa jaso ondoren, eta, betiere, kontuan hartuta kasuan kasuko inguruabarrak eta zehapenen proportzionaltasun-printzipioa.

Arau-hausteak abereen zaintzaren arabera edo abereekiko erreferentziaren arabera tipifikatzen direnean, zehapena abelburu bakoitzeko ipiniko da, guztirako zenbatekoak dagokion arau-hausterako aurreikusitako dena gainditzen badu ere.

Isunak diruz edo abeltzaintzarekin erlazionatutako auzolanez ordaindu ahalko dira; erakunde zehatzaileak zehaztuko du ordaintzeko modua.

2. Isun bidezko zehapenei zehapen gehigarri hauek ere erantsi ahalko zaizkie:

a) Bazka larreak erabiltzeko baimena baliogabetzea, arau-haustearen larritasunaren arabera eta eskala hau aplikatuta:

a. Arinak: baimena eteteko edo baliogabetzeko ohartarazpena.

b. Baimena etetea urtebetetik hiru urtera bitarteko epean.

c. Oso larriak: baimena hiru urtez etetea edo behin betiko kentzea.

b) Titular baten abelburuen ehuneko 50ak baino gehiagok ez badaramate udal belarritakoa, bazka larreetarako urteko udal baimena baliogabetuko da eta abelburuak kanporatuko dira.

c) Sutea dagoenean, abisua jaso ondoren behar bezalako bizkortasunez ez joatea sua itzaltzeko lanetara, betiere, delako mendian zuzeneko edo zeharkako aprobetxamenduren bat badu: auzokideentzako aprobetxamenduak izateko eskubidea kentzea bi eta sei urte bitarteko epean, baina, hala ere, dagozkion erantzukizun penalak ere eskatu ahalko dira.

3. Ezar litezkeen administrazio-zehapenak gorabehera, arau-hausleak konpondu edo ordaindu beharko ditu eragindako kalteak, organo zehatzaileak zehazten duen moduan eta baldintzetan. Betebehar hori saihestezina izango da baso-jabari publikoan eragindako kalteen kasuan.

Halaber, arau-hauslearen onura ekonomikoa handiagoa denean aurreikusitako zehapenik handiena baino, kalte-ordaina eskatu ahalko da. Gehienez, onuraren zenbatekoaren bikoitza izango da zehapena, eta, onura publikoa aitortua duten mendien kasuan, hobekuntzetarako funtsean sartuko da bildutako dirua.

4. Ordenantza honekiko ustezko arau-hauste arina egiaztatu ostean, ustezko erantzuleari jakinaraziko zaio, eta ustezko arau-haustearen araberrako epea emango zaio arau-haustea gelditzeko; epe hori ez da inoiz hamabost egun natural baino luzeagoa izango. Errekerimenduari ez bazaio jaramonik egiten, egindako arau-haustea larritzat hartuko da zehapenaren ondoreetarako.

5. Ordenantza honekiko ustezko arau-hauste larria egiaztatu ostean, ustezko erantzuleari jakinaraziko zaio, eta ustezko arau-haustearen araberrako epea emango zaio arau-haustea gelditzeko; epe hori ez da inoiz hamar egun natural baino luzeagoa izango. Errekerimenduari ez bazaio jaramonik egiten, egindako arau-haustea oso larritzat hartuko da zehapenaren ondoreetarako.

6. Ordenantza honekiko ustezko arau-hauste oso larria egiaztatu ostean, ustezko erantzuleari jakinaraziko zaio, eta ustezko arau-haustearen araberrako epea emango zaio arau-haustea gelditzeko; epe hori ez da inoiz bi egun natural baino luzeagoa izango. Errekerimenduari ez bazaio jaramonik egiten, ez da aplikatuko artikuluko honetako 2 a) idatzi zatian adierazitako aukera, eta zehapen osagarri hau ipiniko da:

a) Bazka-larreetara sartzeko baimena indargabetzea zehapen jartzen den urte osoan.

b) Kasuan kasuko inguruabarrak kontuan hartuta zehaztuko da bazka-larreetara sartzeko baimenaren baliogabetzea hurrengo udal ebazpena jaso arte luzatzen den; gehienez ere, bost urtez luza daiteke.

7. Arau-hauste oso larrien ondoriozko zehapenak hiru urteren buruan iraungiko dira, arau-hauste larriengatikoak bi urteren buruan eta arinak urtebeteren buruan.

Zehapenak jartzeko ebazpena administrazio-bidean irmo bihurtu eta hurrengo egunean hasiko da zenbatzen zehapenen iraungitze-epea.

Iraungitzea geldiarazi egingo da betearazpen-prozedura hasten denean, betiere, interesduna jakitun dela; iraungitze-epeak berriro egingo du aurrera, baldin eta prozedura hilabete baino gehiagoz geldiarazita egon bada arau-hausleari egotzi ezin zaion arrazoiren batengatik.

22. artikulua. Zehatze-prozedura eta zehatze-eskumena

1. Dirulaguntzen arloko zigorrak administrazio-espeditente baten bitartez ipiniko dira. Nolanahi ere, entzunaldia eskaini beharko zaio pertsona edo erakunde interesdunari edozein erabaki hartu aurretik, eta zehapen-prozedurari buruzko administrazio-legeetan xedatutakoarekin bat bideratu beharko da espeditentea.

2. Alkate-udalburuarena da ordenantza honetan jasotako zehapenak ipintzeko eskumena, eskumena eskuordetzeko duen aukera gorabehera.

Laudio, 2021eko martxoaren 8a

Alkate-udalburua

ANDER AÑIBARRO MAESTRE